

IRAGARKIA

185. ALDIZKARIA - 2022ko irailaren 16a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

1589/2022 EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 22koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana. Haren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko funtzionario izendatzen du Mikel Ripa Salvide jauna, OLko teknikari izateko, eta lanpostu bat esleitzen dio.

Ikusirik Mikel Ripa Salvide jaunaren aldeko izendapen-proposamena, 2022ko abuztuaren 4an Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaraturikoa.

Izangaiak deialdiaren 9.2 oinarrian eskatzen den dokumentazioa aurkezturik, eta ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztaturik.

Langileria Kudeatzeko Ataleko buruaren txosten-proposamena ikusirik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen 40. artikuluan esleituta dauzkadan eskudantziak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.—Mikel Ripa Salvide jauna Nafarroako Unibertsitate Publikoko funtzionario izendatzea, OLko teknikari izateko, eta hari 605 zenbakiko lanpostu hutsa esleitzea, Antolamendurako eta Kalitaterako Zerbitzuko Kalitatea Hobetzeko Unitateari atxikia.

Bigarrena.—Izendaturiko pertsonak hilabeteko epea izanen du lanpostuaren jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

Hirugarrena.—Agintzea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila, jakinaraz dakiola interesdunari eta helaraz dakiola Kudeatzailetzari.

Laugarrena.—Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, haren kontra, zilegi da berraztertze errekurtsoa aurkeztea errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 22an.–Ramón Gonzalo García, Errektorea.

Iragarkiaren kodea: F2211930